


EKOTURISMOA EUSKADI



EUSKADI
BASQUE COUNTRY

Argitaraldia:

2025

©:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa.
Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Edukien koordinazioa:

Basquetour Turismoaren Euskal Agentzia.

Diseinua:

EPS Comunicación

Argazkiak:

Basquetourren irudi-bankua (zenbait egile).
Euskadiko turismoko eskualde-erakundeak.

Kartografia:

Lurralde Plangintza, Hirigintza eta
Hiri Berroneratze Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
Hazi Fundazioa.



Eskubide guztiak erreserbatuak daude. Debekatuta dago gida honetan bildutako testu eta irudiak osorik eta/edo zatika erreproduzitzea erakunde argitaratzailearen eta egileen alde aurreko baimenik gabe. Eskertuko genizuke gida honetan aurki ditzakezen akats edo omisioak guri jakinaraztea, honako honetara idatziz: outdoor@basquetour.eus

EKOTURISMOA EUSKADI

turismoa.euskadi.eus/eu/

BASQUETOURL, TURISMOAREN EUSKAL AGENTZIA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA ETA
KONTSUMO SAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz 2025



ZER DA EKOTURISMOA?

Natura-eremu baterako bidaia da ekoturismoa, eremu hori ezagutu, interpretatu, gozatu eta zeharkatzeko, eta aldi berean eremu hori balioesten du eta laguntza praktikoa ematen du natura kontserbatzeko, ingurunearen gaineko inpakturik eragin gabe eta bertako biztanlerian eragin positiboa izanda.

2016ko Daimielgo Deklarazioa

“Zer koloretakoa da Euskadi?” galdetuko balizute, seguruenik “Berdea” erantzungo zenuke, zalantzarik egin gabe. Euskadiko hirietako kulturak eta dinamismoak liluratuta uzten dute bisitaria, baina Euskadi, ororen gainetik, NATURA da. Natura hori batez ere paisaietan eta kolore bizietan geratzen da agerian.

Bertako ingurune berdeez gozatzeko eta horiekin elkarreragiteko aukerak ugariak eta askotarikoak dira, jarduerarik aktibo eta zirrargarrienekin hasi eta lasaienekin eta familia-giroan egiten direnekin amaitzeraino. Eskaintza zabal horretaz bakarrik, familiarekin edo lagunekin gozatu ahal izango duzu, eta paradisu natural ezezagun eta liluragarri batean murgilduko zara.

Ingurumen-balio handiko lurralde natural zabala du Euskadik: parke naturalak, Natura 2000 Sarea, Euskal Kostaldeko Geoparkea edo Urdaibaiko Erreserba, azalera osoaren % 23 izanik.

Ingurune horietan paseatu eta ingurune horietaz gozatzea edo leku paregabeetan hegaztiak behatzea izan daitezke gozatu ahaliko dituzun proposamen iradokitzaileen arteko batzuk Euskadi aukeratzen baduzu.

Hemen, naturarekin eta bertako kulturarekin konprometitzeko aukera izango duzu, naturaguneetan arduratsua den turismo batean parte hartuz. Ekoturismoa da gure nortasun-ezaugarria.

AURKIBIDEA

URDAIBAI 12

Urdaibai Biosfera Erreserba

GEOPARKEA 20

Euskal Kostaldeko Geoparkea

PARKE NATURALAK 28

HEGAZTIAK BEHATZEKO TOKIAK 50

Behatzeko tokiak-lbilbide ornitologikoak

EKOETXEA SAREA 54

Natura interpretatzeko zentroak

SALBURUKO HEZEGUNEA 56

ATARIA - Salburuko hezeguneeen interpretazio zentroa, Vitoria-Gasteiz

LEITZARAN ERRESERBA NATURALA 58

Bisitarien Etxea

AÑANAKO GATZ HARANA 60

EKOTURISMOKO JARDUERAK 64

KOKAPEN-MAPA

EKOTURISMOA

8

ARMAÑON
PARKE NATURALA

MEATZALDEA
PENAS NEGRAS

URDAIBAI
BIOSFERA
ERRESERBA

BILBAO

URKIOLA
PARKE NATURALA

GORBEIA
PARKE NATURALA

GOROBEL
MENDILERROA

ATARIA
SALBURUA

VITORIA
GASTEIZ

VALDEREJO
PARKE NATURALA

AÑANAKO GATZ
HARANA

MIRANDA
DE EBRO

ARABAKO HEGOALDEK
MENDILERROAK



GEOPARKEA

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

TXINGUDI

PAGOETA
PARKE NATURALA

AIAKO HARRIA
PARKE NATURALA

AZPEITIA

LEITZARAN
Bisitarien Etxea

AIZKORRI ARATZ
PARKE NATURALA

ARALAR
PARKE NATURALA

URIBARRI
GANBOA

PARKE NATURALAK

PARKETXEAK

GEOPARKEA

URDAIBAI Biosfera Erreserba

HEGAZTIAK BEHATZEKO TOKIAK

EKOETXEA

SALBURUKO HEZEGUNEA

LEITZARAN ERRESERBA NATURALA

AÑANAKO GATZ HARANA



EKOTURISMOA


Wikilocen gure
profilean aurki ditzakezu
ibilbideen **informazio**
eta **track** guztiak



Eskaneatu QR kodea ibilbide guztiak
kontsultatzeko eta trackak deskargatzeko
wikiloceko gure profilean
EUSKADI TURISMO. EKOTURISMOA



wikiloc

A scenic landscape photograph of a hiking trail in the Basque Country. In the foreground, four hikers are on a rocky path. One person on the left is crouching, another is standing and taking a photo with a red camera, and a third person on the right is wearing a colorful beanie and a pink jacket, also taking a photo. A fourth person is partially visible on the far left. The background features a dense forest of green trees and a large, rugged rock formation under a blue sky with some clouds.

EUSKADI

BASQUE COUNTRY

URDAIBAI

BIOSFERA ERRESERBA

12

Urdaibai Biosfera Erreserba ingurumen- eta kultura-interes handiko naturagunea da, eta UNESCOk hala deklaratu zuen 1984. urtean.

Urdaibai Biosfera Erreserba Euskadiko paisaia- eta ekologia-dibertsitate handieneko lekuetako bat da, eta egundoko balioa duten zenbait sistema biltzen ditu, besteak beste **estuarioak** eta **ibaiak**, sistema **karstikoa**, artadi kantauriarrarekin, eta **kostaldea**, guztiak ere Europar Batasunak sustatutako **Natura 2000** sare ekologikoaren barruan.

Padurak, labarrak, basoak, hondartzak, historia, kultura eta tradizioa, Bizkaiko golkoaren ur geldi hauek datozen guztiek horiek eta beste hainbat altxor aurkituko dituzte.

Bertako inguru guztiak izango dira bisitaren protagonistak. Euskadik eskaintzen dituen **esperientzia** xarmagarrienetako batzuekin gozatzeko aukera izango duzu: leku honetako hegazti ugariak ikusi eta dibertsitate handi horretatik ikasi; kostaldeetako izurde bihurriekin jolastu eta gozatu; Laga hondartzako dunen ondoan paseatu; Gaztelugatxeko San Joanen ikusmira miretsi; bertako pilotaleku esanguratsuenetako batean pilotan jolastu edota piraguismoan trebatu.



INFORMAZIO GEHIAGO

Eskaneatu QR kode hau.

www.turismourdaibai.com



EUROPARC

Turismo Sostenible en
Espacios Protegidos

Ekoturismoa Euskadi



urdaibai
basque reserve

★ INTERES OROKORREKO GUNEAK

Urdaibaiko Biosferaren Erreserbak ezinbestez bisitatu beharreko **12 puntu** eskainiko dizkizu:

1. Estuarioa

Erreserbaren bihotza eta ardatz egituratzailea

2. Matxitxako / Gaztelugatxe

Itsasargia, zetazeoak ikusteko postua, itsaslabarrak eta Gaztelugatxeko San Joan

3. Gernika-Lumo

Bonbardaketa, Gernikako Batzar Etxea eta Zuhaitza

4. Ogoño / Laga

Ogoño eta Laga hondartza

5. Mundaka

Mundaka eta haren ezker olatua

6. Bermeo

Bermeoko portua eta alde zaharra

7. Elantxobe

Hirigune historikoa eta arrantzale-portua

8. Urdaibai Bird Center

Abifaunari buruzko dokumentala, zuzen-zuzenean

9. Ekoetxea Urdaibai

Ikusi 55. or.



Urdaibaiko ondare naturalari eta kulturalari begirada bat.

10. Oma / Santimamiñe

Oma basoa eta duela 14.000 urteko aztarnategi arkeologikoa

11. Ereñozar

Ereñozarreko artadia eta Erdi Aroko gailurra

12. Padura

Lezkadien arteko paseoa, hezegunean barrena




URDAIBAI INTERES OROKORREKO GUNEAK




OINEZKO BIDEAK

Eskaneatu QR kode hau

BIDEEN informazio gehiago izateko:







SOY ECOTURISTARI ATXIKITAKO ENPRESAK

JATETXEA

MADAIXAGANE Jatetxea

Busturia

www.restaurantemadaixagane.es

ARDI BELTZA

Kortezubi

www.facebook.com/kortezubikoardibeltza/

ALMIKETXU Erretegia

Bermeo

www.almiketxu.com

LEZIKA Taberna Jatetxea

Kortezubi

www.restaurantelezika.com

REMENETXE Jatetxea

Muxika

www.remenetxe.com

ZALLO BARRI Jatetxea

Gernika

www.zallobarri.com

OSTATUAK

ASTOBIETA Landetxea

Ajangiz

www.nekatur.net/astobieta

ARRIZURIETA Landetxea

Bermeo

www.arrizurieta.eus

HEMINGWAY KANALA HOUSE

Sukarrieta (Kanala)

www.casarural-kanala.com

Hotel Spa GAMETXO

Ibarrangelu

www.hotelgametxo.com
URDAIBAI Km0

Busturia

www.nekatur.net/urdaibaikm0
Eco Hotel Rural ANGIZ

Busturia

www.ecohotelruralangiz.com
ETXELAIA

Gautegiz Arteaga

www.etxelaia.com
ATXURRA Landa Hotel Apartamentua

Bermeo

www.hotelatxurra.com
NAFARROLA Hotela

Bermeo

www.hotelnafarroa.com
IBERREKO ERROTA

Muxika

www.iberrekoerrotta.es
LURDEIA Nekazaritza-Turismoa

Bermeo

www.lurdeia.com
Eko Hotel MUNDAKA

Mundaka

www.hotelmundaka.com

EKOTURISMOKO JARDUERAK

LAGA SURF CAMP

Ibarrangelu

www.lagasurfcamp.com
UR URDAIBAI

Ibarrangelu

www.urdaibai.com
IZKIRA URDAIBAI

Mundaka

www.izkiraurdaibai.com
BBK Klima

Axpe

<https://www.bbk.eus/eu/proiektuak/bbk-urdaibai-zentrua/>

URDAIBAI BIOSFERA ERRESERBA

EKOBIDEAK	Bilbao
------------------	--------

www.ekobideak.com

HEGALUZE	Bermeo
-----------------	--------

www.hegaluze.com

URDAILIFE	Bermeo
------------------	--------

www.urdailife.com

NOVEREK	Gernika
----------------	---------

www.noverek.es

URDAIBAI EXPERIENCE	Gernika
----------------------------	---------

www.urdaibaixperience.eus

BIDAIA-AGENTZIAK

GENUINE SPAIN	Vitoria-Gasteiz
----------------------	-----------------

www.genuinespain.es

BASQUE LANDS WAY	-
-------------------------	---

www.basquelandsway.com

NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN ENPRESAK

ITSASMENDI UPELTEGIA	Gernika-Lumo
-----------------------------	--------------

www.bodegasitsasmendi.com

BERROJA TXAKOLI UPELTEGIA	Muxika
----------------------------------	--------

www.bodegaberroja.com

CAMPOS KONTSERBAK (SALICA INDUSTRIA)	Bermeo
---	--------

www.salica.es

TALLERI UPELTAGIA	Morga
--------------------------	-------

www.bodegatalleri.com/eu/

ARROYABE KONTSERBAK	Bermeo
----------------------------	--------

www.arroyabe.es

BESTELAKOAK

NUEVA EUROPA

www.nuevaeuropa.eus

Gernika-Lumo

URDAIBAI BIRD CENTER

www.birdcenter.org

Gautegiz Arteaga



EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEA

20



unesco

Global Geopark



Flysch

Euskal Kostaldeko Geoparkea Zumaia, Deba eta Mutrikuko udalerriek osatzen dute eta Kantauri itsasoaren eta euskal mendien artean dago kokatua. 2010. urtetik Geoparkeen Europako Sareko eta Sare Globaleko kide da, eta 2015. urteaz geroztik, UNESCOren Munduko Geoparkea da.

Geologia da paisaia honetako egiazko protagonista, Lurraren historiako pasarte zirraragarrienak gordetzen baititu. Geoparkeko 13 kilometroko itsaslabarrek haitz-geruzek osatutako formazio ikusgarria gordetzen dute, Flysch izenekoa. Entziklopedia baten

antzeria, Lurraren historiaren 60 milioi urte baino gehiago irakur daitezke bertan.

Kostaldetik barrualdera joanda, Karstaren mundua aurkituko dugu. Bertan, Europako herri zaharrenetakoaren kultura eta ohiturak ezagutu ahal izango ditugu.

Euskal Kostaldeko Geoparkeak liluratu egingo zaitu. Hemen denbora, lurra, bizitza eta gure espezie propioa dira protagonista.



INFORMAZIO GEHIAGO
Eskaneatu QR kode hau.
www.geoparkea.eus



EUSKAL KOSTALDEA · COSTA VASCA

★ INTERES OROKORREKO GUNEAK

Euskal Kostaldeko Geoparkera hurbiltzen bazara, ezinbestez ezagutu beharreko honako **12 puntu** hauek dituzu:

1. Zumaia

Xarma handiko kostaldeko herri bat

2. Itzurun-Algorri

Geoparkeko santutegi geologikoa

3. Urola

Dunak, padurak eta artadiak

4. Elorriaga

Itsaslabar itzelak eta zelai zoragarriak

5. Sakoneta

Geologiako museo zirraragarria

6. Deba

Milaka urteko historia

7. Mutriku

Euskal kostaldeko altxorra

8. Saturraran

Flysch beltzeko hondartza ezkutua

9. Olatz

Oso esperientzia tentagarria

10. Arno

Geoparkeko piramide estaliak

11. Lastur

Geoparkeko haran itxia

12. Ekain

Gizadiaren Ondare




GEOPARKEA INTERES OROKORREKO GUNEAK

OINEZ EGITEKO GEOIBILBIDEEN SAREA

Deskargatu Geoibilbideak zure
mugikorrean, eta zatoz ibilbideak egitera:



22







SOY ECOTURISTARI ATXIKITAKO ENPRESAK

OSTATUAK

Camping ZUMAIA www.campingzumaia.com	Zumaia
ARBE Hotela www.hotelarbe.com	Mutriku
KANALA ITZIAR Hotela www.hotelkanala.com	Deba
ELEIZONDO Landetxea www.nekatur.net/eleizondo	Deba
Camping ITXASPE www.campingitxaspe.com	Deba
SANTA KLARA Nekazaritza-Turismoa www.agroturismosantaklara.com	Zumaia
PERLAKUA - SAKA Nekazaritza-Turismoa www.sakabaserria.com	Deba
LASTUR Aterpetxea www.lastur.eus	Deba
GOIKOLA Landetxea www.goikola.com	Deba

ZUBELTZU TORRE Hotela

Deba

www.zubeltzutorre.es
TXINDURRI ITURRI Nekazaritza Turismoa

Deba

www.txindurri.com
TALASOTERAPIA ZELAI ZUMAIA Hotela

Zumaia

www.talasoterapiazelai.com
PIKUA Landetxea

Mutriku

www.pikua.es
ENDAÑETA - BERRI Nekazaritza Turismoa

Deba

www.endanetaberri.com
ARRIOLA TXIKI Nekazaritza Turismoa

Deba

www.arriolatxiki.es
FLYSCH Hotela

Zumaia

www.hotelflysch.com
ARRUAN-HAUNDI Nekazaritza Turismoa

Deba

www.nekatur.net/arruanhaundi
ZUMARDI Pentsioa

Deba

www.pensionzumardi.com
ERLETE GOIKOA Nekazaritza Turismoa

Deba

www.erletegoikoa.com
URAIN SUITES Landa Apartamentuak

Deba

www.urainsuites.com

EKOTURISMOKO JARDUERAK

BEGI BISTAN
www.begi-bistan.com

EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEA

SURFING ZUMAIA

Zumaia

www.surfingzumaia.com

GAILUR zaldiketa eskola

Deba

www.gailurzaldiketa.com

26

BIDAIA-AGENTZIAK

BASQUE DESTINATION

Zumaia

www.basquedestination.com





EUSKADIKO PARKE NATURALAK

28

Euskadin, natura espazio bakoitzak bere nortasuna du.

Aurkitu itzazu guztiak!



INFORMAZIO GEHIAGO

Eskaneatu QR kode hau.

www.turismoa.euskadi.eus/eu/naturguneak/

Euskadiko Parke Naturaletara hurbiltzea Euskadiko ondarea ezagutuz gozatzea da. Natura eta kultura neurri berean eskaintzen duten parke natural horiek Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoetako naturaturismoaren erreferentzia dira.

Bakoitzak bere paisaia berezia du, eta bisitarientzako ekipamendu- eta zerbitzu-eskaintza handia dute guztiek. Era horretan, bidaiaririk zorrotzena ere pozik uzteko moduko kalitateko eskaintza bat osatzen da.

Euskadiko eskualderik urrunenetan kokatuta dauden parke horiek aire

zabaleko jarduera fisiko ugari egiteko aukera eskaintzen dute: natura interpretatzeko bisitaldi gidatuak, senderismoa, bizikleta- edo zaldi-ibilbideak, turismo ornitologikoa, piknika eta abar.

Bisitarien zentroek edo Parketxeek informazio mota oro ematen diete bisitariei, bisitaldia erosotasunez planifikatu ahal izan dezaten. Gainera, zentro horietara joatea beti lagungarria izaten da bisitatu nahi den lurraldea hobeto ezagutzeko.



PARKE NATURALAK ETA PARKETXEAK

9 Parke Natural daude Euskadin. Hurbildu Parketxeetara eta ezagutu hainbat paisaia, bide eta abar.

ARMAÑON PARKE NATURALA

30

Bizkaiko mendebaldeko muturrean, Kantabriarekiko mugan, mendigune bat dago Enkarterriko paisaiaren barruan: Armañongo Parke Naturala. Bertan, landa-izaerako lur muinotar eta menditsuak aurkituko dituzu. Horien artean, Armañon, Ranero, Surbias eta Los Jorrios mendietako tontorrak nabarmentzen dira.

Parkeko zorupean, balio handiko 200 kobazulo eta leize baino gehiago daude. Horien artean, ezinbestekoa da Pozalaguako Kobazuloa bisitatzea, oso gomendagarria baita. Izan ere, formazio ikusgarriak ikusteko aukera ematen du (estalaktita eszentrikoak, bereziki).

Pozalaguako Kobazuloaren inguruetan, Parke Naturalari eta ondoan dagoen Ordunteko eremu menditsuari buruzko informazio gehiago lortu ahal izango duzu; Ordunteko eremua, Armañon bezalaxe, Natura 2000 Sarean sartuta dago.

Landa-izaerako lurralde horretan, eta azindari dagokionez, bertako


hainbat arrazak diraute oraindik, eta erraz ezagut daitezke Parkeko ingurunera egiten den bisitaldian. Horien artean, Karrantzako ardia (muturgorria eta muturbeltza), Enkarterriko txakur billanoa eta behi montxinoa aipa daitezke, besteak beste.



1. Parkeko begiratokia
2. Armañon Parke Naturala



Eskaneatu QR kode hau
informazio gehiago edukitzeko



Hedadura: 2.985 ha **Altitudea:** Armañon (854 m) · Los Jorrios (847 m)




PARKETXEA

Ranero, Karrantza (Bizkaia)

T. 688 884 330 · E. armañon.parke.naturala@bizkaia.eus

31



VALDEREJO PARKE NATURALA

32



Senderismoa atsegin baduzu, leku aproposera iritsi zara. Valderejo haran zabala da, harkaitzetan amaitzen diren mendi-hegal piko batzuez inguratua eta bederatzidexkaz zeharkatua. Bidexka horien artean, Parkeko altxor paisajistikoa den Purón ibaiaren haitzarte ederra nabarmentzen da.

Valderejon, askotariko fauna eta flora aurkituko duzu. Bertako balio ornitologikoak

bereziki deigarriak dira, eta bertako harkaitzen artean, Euskadiko sai arrearen koloniarik handiena bizi da.

Lalastran (Valderejoko bihotzean), ibilbide eta zerbitzuei buruzko informazioa ematen duen Parketxea edo Parkeko Harrera Zentroa, eta haraneko historiaren eta ohituren berri ematen duen Landa Interpretazioko Zentroa ditugu.


Familiarekin etortzen bazara, haurrentzako ekipamendua eta piknik egiteko aukera eskaintzen duen atseden-eremu bat duzu.

Handik oso hurbil, Lahoz, Villamardones eta Ribera daude. Azken biak abandonatuta daude, eta interesgarria da barruan ibiltzea. Inguruan, halaber, erromatarren garaiko galtzada baten aztarnak, monumentu megalitikoak (San Lorentzo tumulua eta Leron mendiko monolittoa) eta hainbat garaitako ermitak daude.

- 📍 1. Purón bidezidorra, haitzarteak
2. Parke naturalaren ikuspegiak Lalastratik



Eskaneatu QR kode hau
informazio gehiago edukitzeko



Hedadura: 3.496 ha **Altitudea:** Recuenco (1.240 m)



PARKETXEA

Lalastra (Araba/Álava)

T. 945 353 146 · E. parquevalderejo@parques.araba.eus

33



GORBEIA PARKE NATURALA

34

1



Gorbeia Parke Naturala euskal mendizaletasunaren ohiko erreferentziagunea da. Bertako gailurrak (1.482 m) Bizkaia eta Araba arteko muga ezartzen du, eta bertan dago Gorbeia Gurutze ospetsua.

Gorbeian, oso paisaia desberdinak daude: harkaitz malkartsuak, bazkaleku leunak, urtegi gardenak, ur-jauzi ikusgarriak edo pagadi eta hariztiak. Gainera, multzo karstiko bat ere badago, ia 500 barrunbe katalogatuta dituena.

Gainera, Itxinako Biotopo Babestua eta 100 metrotik gorako Goiuriko urjauzia ere oso paisaia-elementu azpimarragarriak dira. Aire

garbia eta paisaia oparoa ez ezik, hamaika aukera ere aurkituko dituzu gastronomiarekin, aisialdiarekin edo kiolarekin lotuta.


Parkeko paisaiaren kalitatea eta Parkeak euskal herritarrentzat duen esanahi kultural eta afektiboa direla-eta, jarduera ugariren gune bihurtu da eremua: senderismoa, mendia, mendiko bizikletaz eta zaldiz egiteko ibilbideak, espeleologia eta abar.

Jolas-ekipamenduak dituzten hainbat gune daude, eta bisitarien bi zentro: bat Arabako Sarria herrian (Baiako Zentralaren parajea) eta bestea Bizkaiko Areatza herrian.

1. Gorbeia mendiko tontorra
2. Gorbeia Gurutzea



Eskaneatu QR kode hau
informazio gehiago edukitzeko



Hedadura: 20.016 ha **Altitudea:** Gorbeia (1.482 m) · Ziorraga, Areatza (300 m aprox.)



PARKETXEA

Sarria (Araba/Álava) · T. 945 430 709 · E. parquegorbeia@parques.araba.eus
Areatza (Bizkaia) · T. 946 739 279 · E. gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus

35




URKIOLA PARKE NATURALA

36

Urkiolako Parke Naturalean, Aramotz mendilerroko altuera handieneko lur-eremuak biltzen dira, eta Bizkaiko Arratia eta Durangaldea eskualdeen eta Arabako Aramaio haranaren arteko kareharrizko hesi handi bat osatzeaz gain, arro kantauriarra eta mediterraneo bereizten ditu. Paisaia malkartsuak gogoko badituzu, hauxe duzu zurea. Parkean kareharrizko hainbat mendilerro eta haitz daude, amildegi eta haran sakonak, eta mendizaletasuna eta senderismoa sustatu duten gailurrak.

Anboto da gailur garaiena, eta jende asko ibiltzen da bertan, Mariren kobazuloa erreferente mitologiko izanik. Parke Naturalean, San Antonio Abadeari eta San Antonio Paduakoari eskainitako Antonio Santuen Santutegia dago, eta Euskadiko erreferente espiritual garrantzitsua izan da mendez mende. Santutegitik metro gutxira, Parkeko begiratoki ederrena dago: Hiru Gurutzeen begiratokia. Urkiolako Santutegiaren aurrean, harri sinboliko bat ikusiko



duzu; bikotekidea aurkitu nahi dutenentzat erromesaldia egiteko tokia da.


Kondairak dioenez, harriaren inguruan hiru bira ematea aski da bikotekidea lortzeko.

Urkiolako portuaren gainaldean Toki Alai dago, Parke Naturaleko bisitarien zentroa; bisitaldi gidatuak eta jarduerak eskaintzen ditu.

© 1. Parkekoa. Toki Alai Interpretazio Zentroa.
2. Urkiola Parke Naturala



Eskaneatu QR kode hau
informazio gehiago edukitzeko




Hedadura: 5.955 ha **Altitudea:** Anboto (1.330 m)



PARKETXEA

Toki Alai Interpretazio Zentroa · Urkiola auzoa, Abadiño (Bizkaia)
T. 946 814 155 · E. urkiola.parke.naturala@bizkaia.eus

37



IZKI PARKE NATURALA

38

Izkiko Parke Naturala Gasteiztik 31 kilometrora dago, eta Izki ibaiak zeharkatzen duen eta mendiek inguratzen duten baso-eremu handi bat da. Kotarik garaiena Kapildui mendia da (1.176 m).

Bazter aproposa da turismo ornitologikoa, ibilaldiak eta txangoak egiteko (oinez, bizikletaz edo zaldiz).

Izkin, *Quercus pyrenaica* zuhaitz-espeziearen Europako erreserba dago, eta kontserbatzea eta ezagutzea merezi duen landa-kultura berezi bat garatu da bertan.

Korrestik Izkiko sakana zeharkatu eta Bujandara iristeko aukera dago. Izki ibaiaren arroila ikusgarriak eta atsedeen-eremu zabal batek bakarrik edo familiarekin gozatzeko aukera emango dizute.

Inguruan, oso deigarriak egingo zaizkizu Laño, Faido eta Markinezko eremutarren kobak, Arluzeako arroila eta harkaitzak, eta Urizaharreko hiribildua.

Golfa edo BTTa gustuko badituzu, Urturin turismo-zerbitzu paregabeak aurkituko dituzu bi kirol-modalitate horietarako.


Korresko Parketxean, Izkiko ibilbideei eta beste berezitasun batzuei buruzko informazioa emango dizute.



1. Okil ertaina (*Dendrocopus medius*).
2. Begiratokia. Antoñana bidezidorra.



Eskaneatu QR kode hau
informazio gehiago edukitzeko



Hedadura: 9.143 ha **Altitudea:** Kapildui (1.180 m)



PARKETXEA

Korres (Araba/Álava)

T. 945 410 502 · E. parqueizki@parques.araba.eus

39



AIZKORRI-ARATZ PARKE NATURALA

40

1



Gipuzkoako sai arreen koloniarik handienara hurbildu, Arrikutzeko kobazuloa bisitatu, Iturigorriko pagadi izugarria zeharkatu edota Euskadiko gailurrik ezagunenetako batzuetan zehar latxa ardiengandik hurbil ibili; hori guztia egin dezakezu Parke honetan. Bertako mendilerroa erreferentzia da euskal mendizaleentzat, eta benetako mendi-harresi bat da Gipuzkoaren eta Arabaren artean.

Euskadiko mendikaterik garaiena izateaz gain, Aizkorri-Aratzeko Parke Naturaleko kultura-ondarea oso aipagarria da: trikuharriak, antzinako

kobazuloak eta erromatarren garaiko galtzadak daude bertan.

Oso ezaguna da Gipuzkoaren eta Arabaren artean dagoen San Adriango tunela, errege-bide eta Done Jakue bide izan zen antzinako galtzadak zeharkatzen duen tunela.

Arantzazuko ingurunea ere nabarmendu egiten da bere erlijio-eta kultura-tradizioagatik, eta aukera paregabea eskaintzen du santutegiko espiritualtasunaz gozatzeko.

www.gipuzkoanatura.eus

© 1. Aizkorriko gailurra eta aterpea
2. Oñati inguruko paisaia



Eskaneatu QR kode hau
informazio gehiago edukitzeko



Hedadura: 15.919 ha **Altitudea:** Aketegi (1.551 m)



PARKETXEAK

Arantzazu, Oñati (Gipuzkoa)

T. 943 782 894 • E. arantzazu@gipuzkoamendizmendi.net

Araia (Araba/Álava)

T. 945 386 964 / 688 629 932 • E. parketxe.aizkorriaratz@gmail.com

Zegama (Gipuzkoa)

T. 943 802 187 • E. anduetza@gipuzkoamendizmendi.net

41

PAGOETA PARKE NATURALA

42

Zarautzetik hurbil, landazabaleko eta baserrietako paisaia humanizatu bat duzu aurrez aurre. Erdigunea Pagoeta mendia da, Aia eta Laurgain (Gipuzkoa) landaguneen gainean kokatua.

Pagoetako Parke Naturalak interes handiko prestakuntza- eta jolas-funtzio bat betetzen du. Iturrran Parketxearen zabalkunde-eskaintza naturaren eskolak eta bisitarien zentroak osatzen dute, XV. mendeko baserri paregabe batean. Halaber, oso interesgarriak dira baserrietako bizitzari buruzko erakusketa etnografikoa eta inguruko lorategi botaniko handia.

Pagoetako beste elementu interesgarri bat Agorregiko burdinola da, XV. mendekoa. Baita hotz bidezko kontserbazio-teknika zaharren erakusgarri diren elurzuloak ere.

Historia atsegin dutenek, bestalde, Parkeko historiaurreko aztarna garrantzitsuak ikusi ahal izango dituzte: trikuharriak (Otagain, Olarteta, Zaingo), tumuluak (Muzin, Arreta...) eta kobetako aztarnategiak (Erratia eta Amalda Alzoralas haranean).



Aziendari dagokionez, bertako arrazek ere balio berezia dute (hala nola betizuak eta pottokak).


Parke Naturalaren iparraldeko ingurunea ere nabarmendu behar da; 1956. urtean, hainbat zuhaitz espezierekin baso-berritzeak egiten hasi ziren inguru horretan, eta zuhaitz horien babespean, oihanpe modura, hagina agertzen da askotan.

www.gipuzkoanatura.eus

📍 1. Agorregi burdinola
2. Parketxe Interpretazio Zentroa



Eskaneatu QR kode hau
informazio gehiago edukitzeko



Hedadura: 1.335 ha **Altitudea:** Cruz de Pagoeta (704 m)



PARKETXEA

Iturraran · Aia (Gipuzkoa)

T. 943 835 389 · E. iturraran@gipuzkoamendizmendi.net

43

ARALAR PARKE NATURALA

44

Abaltzisketa eta Ataun dira Parke honetan sartzeko bi ateak. Euskadiko mendi-eremurik garrantzitsuenetako bat da azalerari, altitudeari, lurzoruaren erabilerei eta balio naturalei dagokienez. Halaber, jende gehien erakartzen duenetako bat da. Goierri eta Tolosaldeko eskualdeen artean kokatuta dago, eta lehen mailako paisaia-erreferentzia da, Txindoki (Larrunari) mendiko tontor enblematicoarekin.

Ingurunea aproposa da baserri bat hurbil-hurbiletik ezagutzeko, Idiazabal

gazta eta familiako upeltegi bateko sagardoa dastatzeko, mendiko bizikleta batean ibiltzeko, zaldiz ibiltzeko eta monumentu megalitikoak ikusteko: hogeita hamar bat trikuharri, tumuluak, monolitoak, aztarnategiak (kobazuloan eta aire zabalean), bi harrespil... Horri guztiari lotuta, Ataungo Barandiaran Museoa azpimarratu beharra dago. Museoak, gainera, Parkearen inguruko informazio-eta interpretazio-zerbitzuak eskaintzen ditu.

Bestalde, mendi-ibilbide txiki eta handi batzuk daude balizatuta, eta oinezkoentzako konexioak daude jolas-ekipamenduz hornitutako eremuen artean. Lizarrustiko mendatean, beste informaziogune bat duzu (aterpetxea eta jatetxea ere bada).




📍 1. Parke naturalaren baso tipikoa
2. Txindoki mendia

www.gipuzkoanatura.eus



Eskaneatu QR kode hau
informazio gehiago edukitzeko



Hedadura: 10.971 ha **Altitudea:** Irumugarrieta (1.426 m), Gambo (1.417 m), Txindoki (1.340 m)



PARKETXEA


Lizarrusti, Ataun (Gipuzkoa)

T. 943 582 069 • E. lizarrusti@gipuzkoamendizmendi.net

Barandiaran Museoa, Ataun (Gipuzkoa)

T. 943 180 335 • E. barandiaran@gipuzkoamendizmendi.net

45



AIAKO HARRIA PARKE NATURALA

46



Edertasun paregabeko leku hau Pirinioen inguruko mendietan kokatuta dago, Gipuzkoako ekialdeko muturrean.

Hiru tontor nagusiak Irumugarrieta, Txurumurru eta Erroilbide dira, eta ongi seinalatzatutako hainbat ibilbide daude igotzeko.

Aiako Harritik, Txingudiko Badia, Hondarribia, Irun eta Hendaiako herriak, Jaizkibel mendia eta Oiartzungo harana ikusiko dituzu. Aiztondoko sakanak 100 metroko ur-jauzi bat du, eta oso paisaia berezia eskaintzen du.


Aiako Harriko harri-masaren barruan, meatzeetako hamarka putzu eta galeria daude. Arditurriko meatzean (Oiartzunen), oso bisitaldi interesgarria egin daiteke Parke Naturaleko Parketxetik. Zentro hori meatzeetako laborategia izan zen bere garaian. Bisitaldian, erromanizazioaren garaitik 1984ra arte iraun zuen meatze-ustiategia ikusi ahal izango duzu.

Frantziako mugarekiko hurbiltasuna dela-eta, ingeniari militarrek inguruko mendi-goraguneak aukeratu zituzten egungo Parkearen lurraldean gotorleku batzuk egiteko (erraz bisitatzeko modukoak dira).

- 📷 1. Erreka baten ondoko ibilaldia
2. Aiako Harriko panoramika



Eskaneatu QR kode hau
informazio gehiago edukitzeko



Hedadura: 6.913 ha **Altitudea:** Txurrumurru (821m), Erroilbide (843m)



PARKETXEA

Arditurriko meatzegunea · Oiartzun (Gipuzkoa)

T. 943 495 069 · E. arditurri@gipuzkoamendizmendi.net

47





SOY ECOTURISTARI ATXIKITAKO ENPRESAK

OSTATUAK

ARMAÑÓN PARKE NATURALA

Casa Rural MENDI ALAI

Valle de Carranza

www.mendialai.net

GORBEIA PARKE NATURALA

Casa Rural ALTZUSTE

Altzusta

www.altzuste.com

Casa Rural ETXEGORRI

Orozko

www.casaruraletxegorri.com

Casa Rural ULLE GORRI

Untza-Apregindana

www.ullegorri.com / www.thelandofthebasques.com

IZKI PARKE NATURALA

Agroturismo IZARRATE

Arraia-Maeztu

www.nekatur.net/izarrate

AIZKORRI-ARATZ PARKE NATURALA

Casa Rural GOROSARRI

Eskoriatza

www.gorosarri.com

Casa Rural LEGAIRE ETXEA

Andoin

www.legaireetxea.com

ZADORRA ETXEA

Agurain/Salvatierra

www.zadorraetxea.com
Casa Rural ONDARRE

Segura

www.ondarre.net/es/agroturismo/
PAGOETA PARKE NATURALA
ARBELA APARTAMENTUAK

Larraul

www.arbelapart.eus

49

BABESTUTAKO HAINBAT NATURAGUNE
Casa Rural BENTAZAR

Elosu

www.casaruralbentazar.com
LA MOLINERA ETXEA Casa Rural

Samaniego

www.lamolinteraetxea.com
Casa Rural SATZU

Markina-Xemein

www.nekatur.net/satzu?lang=es-es
EKOTURISMOKO JARDUERAK
CORBEIA PARKE NATURALA
WILEXTOURS

Getxo

www.wilextours.com
BABESTUTAKO HAINBAT NATURAGUNE
EUSKADITREK

Bilbao

www.euskaditrete.es
FAUNEANDO

Vitoria-Gasteiz

www.fauneando.com
FEEL THE ADVENTURE

Bilbao

www.feeltheadventure.eus
WALAVENTURA

Bilbao

www.walaventura.com

HEGAZTIEI BEHARTZEKO TOKIAK

50



Euskadiko hegaztiak ezagutzera gonbidatzen zaitu, informazio-bulegoz hornitutako **10 behaketa-eremutan** eta **25 ibilbide** ornitologikotan barrena.

Txikia bada ere, Euskadik baliabide interesgarriak ditu hegaztiak ikusi nahi dituztenen eskura jartzeko: 50 kilometro baino gutxiagoko tarte batean, hiru eremu bioklimatiko dauzka, ongi bereiziaz: atlantikoa, mediterranea eta bien arteko trantsizio-eremua. Espezie iberikoen % 60k baino

gehiagok Euskadiko zelai eta zeruak zeharkatzen ditu urteko uneren batean, eta zenbait espeziek, **sai arreek edo sai zuriek** esaterako, Europako populaziorik onenetako batzuk dauzkate gurean.

Natura 2000 Europako sareak Euskadiko lurraldeko % 20 baino gehiago hartzen du, eta **Naturagune Babestuen Sare** oparo batek (parke naturalak, biotopo babestuak eta zuhaitz bereziak), nazioarteko garrantzia duten zazpi **Ramsar** hezegunek eta **Biosferaren Erreserba** batek, besteak beste, gure lurraldeko ingurune naturalaren aberastasuna bermatzen dute.



INFORMAZIO GEHIAGO

Eskaneatu QR kode hau.

www.turismoa.euskadi.eus/eu/birding/

HEGAZTIAK BEHATZEKO TOKIAK ETA IBILBIDE ORNITOLOGIKOAK

1. TXINGUDI



Ikusi 55. orria

📍 Irún (Gipuzkoa)

IBILBIDE ORNITOLOGIKOAK

- **Jaitzubiako Padura** | 📍 Jaitzubia-Aparkalekua, Irún (Gipuzkoa) 5,2 Km.
- **Plaiaundi** | 📍 Txingudi Ekoetxea Interpretazio Zentroa, Irún (Gipuzkoa) 2,7 Km.

2. URDAIBAI



Ikusi 55. orria

📍 Gaategiz Arteaga (Bizkaia)

IBILBIDE ORNITOLOGIKOAK

- **San Kristobal** | 📍 San Kristobal Auzoa, Busturia (Bizkaia) 1,9 Km.
- **Urdaibai Bird Center** | 📍 Orueta Auzoa, Zelaieta (Bizkaia) 3,3 Km.
- **Urdaibaiko Goi-Padura** | 📍 Tren Geltokia, Forua (Bizkaia) 7,5 Km.
- **Matxixako** | 📍 Parking Lurgorri, Ctra. BI-3101 Bermeo-Bakio (Bizkaia) 3,1 Km.

3. COROBEL MENDILERROA



📍 Orduña (Bizkaia)

📍 Amurrio (Araba/Álava)

IBILBIDE ORNITOLOGIKOAK

- **Delikako ur-jauzia** | 📍 Delika (Araba/Álava) 6,6 Km.
- **Txarlazo** | 📍 Orduña (Bizkaia) 8,8 Km.

4. ARMAÑON



Ikusi 30. orria

📍 Karrantza (Bizkaia)

IBILBIDE ORNITOLOGIKOAK

- **Sopeñako artadia** | 📍 El Suceso (Bizkaia) 11,3 Km.
- **Pozalaguako ingurunea** | 📍 Parketxe, Armañon (Bizkaia) 1,6 Km.

5. VALDEREJO



Ikusi 32. orria

📍 Lalastra (Araba/Álava)

IBILBIDE ORNITOLOGIKOAK

- **San Lorentzorako igoera** | 📍 Lalastra (Araba/Álava) 7 Km.
- **Purón ibaiaren arroila** | 📍 Lalastra (Araba/Álava) 5,9 Km.

HEGAZTIAK BEHATZEKO TOKIAK ETA IBILBIDE ORNITOLOGIKOAK

52

6. SALBURUA Ikusi ATARIA 32. orria

📍 Vitoria-Gasteiz (Araba/Álava)

IBILBIDE ORNITOLOGIKOAK

- **Arkautiko Urmaela** | 📍 ATARIA, Vitoria-Gasteiz (Araba/Álava) 5,4 Km.
- **Betoñuko Urmaela** | 📍 ATARIA, Vitoria-Gasteiz (Araba/Álava) 3,1 Km.

7. ULLIBARRI-GANBOAKO URTEGIA

📍 Garaio (Araba/Álava)

IBILBIDE ORNITOLOGIKOAK

- **Mendixurreko Parke Ornitologikoa**
📍 Mendixurreko Parke Ornitologikoa, Aparkalekua (Araba/Álava) 3,5 Km.
- **Uribarri-Ganboako Urtegiko bira**
📍 Garaio Parke Probintziala (Araba/Álava) 44 Km.

8. IZKI



Ikusi 38. orria

📍 Korres (Araba/Álava)

IBILBIDE ORNITOLOGIKOAK

- **Izkiko Erreka-zuloak** | 📍 Korres (Araba/Álava) 5,5 Km.
- **Ameztiko Ibilbidea** | 📍 Korres (Araba/Álava) 14,1 Km.
- **Izkiko Urmaelak** | 📍 Urturi (Araba/Álava) 6,1 Km.

9. ARABAKO HEGOALDEKO MENDILERROAK 📍 Korres (Araba/Álava)

IBILBIDE ORNITOLOGIKOAK

- **Kontrastako Erreka-zuloak** | 📍 Kontrasta (Araba/Álava) 8,8 Km.
- **Ioar Zidorra** | 📍 Sta. Cruz de Campezo (Araba/Álava) 13,4 Km.
- **Zezenaren Mendatea** | 📍 Lagrán (Araba/Álava) 11,1 Km.
- **Lobera Pasabidea** | 📍 Salinillas de Buradón (Araba/Álava) 5 Km.

10. LAGUARDIAKO AINTZIRAK

📍 Laguardia (Araba/Álava)

IBILBIDE ORNITOLOGIKOAK

- **Laguardiako Aintzirak** | 📍 Laguardia (Araba/Álava) 8,7 Km.
- **Prao de la Paul Urtegiko Bira** | 📍 Laguardia (Araba/Álava) 3,7 Km.



EKOETXEA SAREA

AUKERA EZAZU EUSKADIKO INGURUMENAREKIN
IZAN NAHI DUZUN BIZIPENA

54

Euskadik Eusko Jaurilaritzak kudeatutako ingurumen-hezkuntzako ekipamenduen sare bat du, **Ekoetxea Sarea**. Ingurumen-zentro horiek mota guztietako jendearentzako esperientziak eskaintzen dituzte, herritarrek gure lurraldeko ingurune naturala zaintzearen eta kontserbatzearen garrantziaz sentsibilizatzea helburu dutenak.

Euskadiko ingurumen-zentroek 130 mila pertsona baino gehiagoren bisita jasotzen dute urtero. Ingurumenari buruz esperimintatzeko eta ikasteko aukera ematen dute, baita pertsona bakoitzak ingurumenaren kontserbazioan duen erantzukizunari buruz sentzibilizatzekoa ere. Hori guztia esperientzia paregabe eta dibertigarrien bidez.

Ezagutu eta gozatu Euskadik kostalde, ibai, mendi eta paisaietako aberastasun naturalaz. Hau guztia, zugandik oso gertu.



INFORMAZIO GEHIAGO

Eskaneatu QR kode hau.

www.ekoetxea.eus



EKOTURISMOA EUSKADI

 Meatzaldea · Peñas Negras

Ekoetxea Meatzaldea Bizkaiko Meatzaldearen bihotzean dago eta bi egoitza ditu, kontrastez betetako paraje berezi batean kokatuak, paisaia karstikoaren eta giza jarduera industrialaren ondorioz ingurunea eraldatu izanaren ondoriozko paisaia berezian.

📍 Carretera Forestal. La Arboleda, Muskiz | 48530 Ortuella (Bizkaia)
T. 946 051 275 E. info.meatzaldea@ekoetxea.eus

55

 Urdaibai

Ekoetxea Urdaibai Euskal Autonomia Erkidegoko Biosfera Erreserba bakarraren bihotzean dago, eta natur aberastasun handia du ezaugarri. Erakusketa gun e iraunkor bat, aldi baterako erakusketetarako gun e bat eta paduraren behatoki bat ditu, besteak beste.

📍 Crta. Bermeo-Gernika. Bº San Bartolomé, 34 | 48350 Busturia (Bizkaia)
T. 946 870 402 E. info.urdaibai@ekoetxea.eus

 Azpeitia

Loiolako basilikako lorategietatik gertu dago Ekoetxea Azpeitia, balio ekologiko handiko paisaiez inguratuta. Gure ingurunea ulertzera eta harekin inplikatzera bideratutako arlo tematikoak lantzen ditu. Xaguxatar Parkea ere badu, ikuspegi ludiko eta interaktibo batetik saguzarren ohiturei, ezaugarriei eta habitatei buruzko informazioa ematen duen hiri-parkea.

📍 Loiola auzoa 1 | 20730 Azpeitia (Gipuzkoa)
T. 943 812 448 E. info.azpeitia@ekoetxea.eus

 Txingudi

Ekoetxea Txingudi Plaiaundi parkean dago, hegazti migratzaile ugarirentzako atsedeenlekuan, eta bertan ikus eta uler daiteke hegazti horien migrazio-fluxuen garrantzia eta padurekin duten harremana.

📍 Pierre Loti Ibilbidea | 20304 Irun (Gipuzkoa)
T. 943 619 389 E. info.txingudi@ekoetxea.eus

SALBURUKO HEZEGUNEA

ATARIA - SALBURUKO HEZEGUNEEN
INTERPRETAZIO ZENTROA. VITORIA-GASTEIZ

56



© Ataria-Begiratokia

Jendeari zabaldutako gunea da Ataria, eta baliabide eta zerbitzuen kopuru handi batekin (erakusketagunea, gelak, behatokia,...), edozein motatako jarduerak hartzen ditu: aisialdi eta entretenimenduzkoak, interpretazioa, dibulgazioa eta komunikazioa, biodibertsitatearen inguruko azterketa eta ikerketa. Hezeguneen ezagutza

bultzatzea eta hezegune horien balioak erakustea da ekipamendu horren helburua, eta, horrekin batera, biodibertsitatearen eta natura-ondarearen garrantzia ere erakustea. Gasteizko Ingurugiro Gaietarako Zentroaren (IGZ) mendekoa.



INFORMAZIO GEHIAGO
Eskaneatu QR kode hau.
www.vitoria-gasteiz.org



SOY ECOTURISTARI ATXIKITAKO ENPRESAK

SALBURUKO HEZEGUNEA

OSTATUAK

JARDINES DE ULETA SUITES

Vitoria-Gasteiz

www.sercotelhoteles.com/es/hotel-jardines-de-uleta

KORA GREEN CITY

Vitoria-Gasteiz

www.koraliving.com

EKOTURISMOKO JARDUERAK

AINHARBE GUÍAS

Vitoria-Gasteiz

www.ainharbeguias.com

CAPITAL BIKES

Vitoria-Gasteiz

www.capitalbikes.es

GALEMYS

Vitoria-Gasteiz

www.galemys.com

GUIARTU

Vitoria-Gasteiz

www.guiartu.es

NATOURING

Campezo/Kanpezu

www.natouring.net

FAUNEANDO

Vitoria-Gasteiz

www.fauneando.com

AITOR DELGADO TOURS

Vitoria-Gasteiz

www.aitours.es/p/aitor-delgado.html

LEITZARAN ERRESERBA NATURALA BISITARIEN ETXEA

58

📷 Sorgin-zubi

Leitzarango Bisitarien Etxeak, Leitzaran bailaran zehar jarduera ekoturistikoak eskaintzen ditu. Leitzaran ibaiaren ibarreko balio natural eta kulturalak erakutsi nahi dizkie bisitariari eta bertan kokatua dagoen bide berdea balioan jarri.

Horretarako ferrata bidean eta bide berdean zehar bisita gidatu interpretatuak eskaintzen ditu (oinez edo bizikletaz) bertako ondarea 5 zentzumenekin ezagutu ahal izateko. Leitzaran Bide berdea zeharkatzeko mendiko bizikletak alokatzeko aukera ere ematen du (haur eta helduentzat, orgak, haurtxoak eramateko aulkitxoak...).

Horretaz gain, naturan murgilduta enpresentzako esperientziak diseinatu dituzte eta taldeei eta eskolei bideratutako mugikortasun iraunkorrean eta ingurumen heziketan oinarritutako ikastaroen eskeintza dute.



leitzaran^o
bisitarien etxea
centro
de visitantes

59

EZAGUTU EZAZU EUSKADIKO BAZTER EDER ETA IKUSGARRIENETAKO BAT

INFORMAZIO GEHIAGO
Eskaneatu QR kode hau.
www.leitzaran-andoain.eus



EKOTURISMOA EUSKADI

AÑANAKO GATZ HARANA

📷 Gatz Harana

60



Zatoz Gatz Haranera, Gesaltza-Añana herri arabarrean (Euskal Herria), eta konpara ezinezko esperientzia bat gozatuko duzu: munduko multzo arkitektoniko, arkeologiko eta historiko bitxienetako bat bisitatzea eta ezagutzea.

Gatz Haranean publikoari irekitako berreskurapen proiektuan parte hartu ahal izango duzu, gauzatzen ari dena 7.000 urte baino gehiagoko historia duen eta gatz ekoizteko milaka plataformak osatzen duten gatz-ustategia berriz ere goieneko mailara eramateko.

Gatz Haranerako bisita gidatuan, aukera izango duzu:

- Bere historia eta erromatarren garaitik harri, buztin eta zurez eraikitako larrain-terrazek osaturiko bertako arkitektura bitxiaren berreskurapen prozesua ezagutu.
- Leku honetan gatz zergatik dagoen ulertu.
- Bertako zidorretatik paseatu eta iturburuetako ur gazia 120.000m²-tan zehar banatzen duten ehunka zurezko ubideren trazadura jarraitu.
- Gatz-egilearen lanbidea ikasi eta goi-sukaldaritzan erruz estimatutako eta kalitate handiko gatz-barietate ezberdinak ekoizten ikasi eta dastatu.
- Oinak eta eskuak Spa Gaziko ur hipergazietan sartu eta osasunerako dituen onurez gozatu.
- Paisaia honetako fauna eta flora bereziak ezagutu.
- Añanako Gatz Harana ezagutu errealitate birtualeko esperientzia sinestezin batekin.

EZAGUTU GEHIAGO AÑANAKO GATZ-HARANARI BURUZ

INFORMAZIO GEHIAGO
Eskaneatu QR kode hau
www.vallesalado.eus



61



Valle Salado
de Añana
Añanako
Gatz Harana

EKOTURISMOA EUSKADI

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

EUSKADI BIZIKLETAN

LORTU EUSKADI BIZIKLETAN GIDA ETA
EZAGUTU LURRALDE BAKOITZA
PEDAL-KOLPEKA

DESKARGATU GIDA
Eskaneatu QR kode hau edo bisitatu webgune hau:
www.euskaditurismo.eus



Kontsultatu ibilbide guztiak eta deskargatu
trackak wikilocoko gure profilean
EUSKADI TURISMOA. IBILBIDEAK BIZIKLETAZ.

wikiloc
www.wikiloc.com

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

EUSKADI OINEZ

ESPLORATU **EUSKADI OINEZ** GIDAREKIN
EUSKADIKO TXOKO BAKOITZA EUSKAL LURRALDEKO
SEINALEZTATUTAKO BIDE GUZTIETAN BARRENA IBILIZ



DESKARGATU GIDA

Eskaneatu QR kode hau edo bisitatu webgune hau:

www.euskaditurismo.eus

wikiloc
www.wikiloc.com

Kontsultatu ibilbide guztiak eta deskargatu
trackak wikilocoko gure profilean
EUSKADI TURISMOA. IBILBIDEAK OINEZ.



EKOTURISMOKO JARDUERA

64

Geoturismoa egitea oinez edo itsasontziz, hegazti harrigarriak behatzea, interpretazioko bideak egitea goi-mailako balioa duten naturaguneetan... Euskadik eskaintzen dituen aukera guztien lagin txiki bat baino ez dira.

Hurrengo orrialdeetan, jarduera horietako zenbait antolatzeko eta kontratatzeko behar izango duzun informazio praktikoa aurkituko duzu.





65



ZUMAIA
BEGI BISTAN



Euskal Kostaldeko Geoparkeko Flysch-ean ekoturismoko jarduerak

Euskal Kostaldeko Geoparkeko Flysch-ean zehar jarduera ekoturistikoak itsasontziz eta oinez edozein motatako talde eta banakakoei egokitua.

BEGI BISTAN

M. 657 794 677

E. info@begi-bistan.com

www.begi-bistan.com



ANDOAIN

LEITZARAN. BISITARIEN ETXEA



Ezagutu ezazu Leitzarango bide berdea oinez edo bizikleta bisita interpretatu baten bitartez

Bide berde berdeena, hori Leitzarango Bide Berdea da. Oinez edo bizikletaz egindako bisita interpretatu baten bitartez, historiaz, naturaz, kulturaz eta mitologiak betetako altxor natural hau ezagutu eta sentitzeko modurik onena proposatzen dizugu.

LEITZARAN BISITARIEN ETXEA

M. 943 300 929

E. info@leitzararandoain.eus

www.leitzararandoain.eus

**ANDOAIN****LEITZARAN. BISITARIEN ETXEA**

Leitzaran Ferrata bidea. Alturazko bisita interpretatua

Leitzaran bailara orain arte ikusi gabeko ikuspuntutik ezagutuko dugu. Bailarak gordetzen dituen sekretuak, historia, bertako fauna eta floraren berezitasunak, kondairak... ezagutzeko esperientzia ezin hobea, gida batek lagunduta, bisita gidatua egingo dugu ferrata bidea egiten dugun bitartean.

LEITZARAN BISITARIEN ETXEA

M. 943 300 929

E. info@leitzaran-andoain.eus

www.leitzaran-andoain.eus

EKOTURISMOKO JARDUERAK

68



BARRIKA
EKOBIIDEAK



Geoturismoa Bizkaian

Geoturismoko aktibitate gidatuak Flysch Bizkaian eta Urdaibaiko Biosfera Erreserban, Euskadiko ondare geologiko ezkutua ezagutzeko, ikasleentzat, taldeentzat eta partikularrentzat.

EKOBIIDEAK

M. 666 857 761 / 688 627 242

E. ekobideak@gmail.com

www.ekobideak.com



URKIOLA
EUSKADITREK



Interpretazio txangoak eta Ipar Martxa

Euskaldunak eta beren mendiak: txango gidatua Urkiolako parque naturalaren bidez. Basoak, gailurrak, historia, mitologia eta tradizioak. Ibili eta ezagutu EUSKADITREK-ekin.

EUSKADITREK

M. 635 715 754

E. info@euskaditrek.es

www.euskaditrek.es

EKOTURISMOKO JARDUERAK

70



URDAIBAI
IZKIRA URDAIBAI

Bidaiarien itsas garraioa eta paseo turistikoak Urdaibain

“Mareen arrastoa Urdaibain” ibilbide gidatua. Mundakako itsasadarrean zehar Urdaibain nabigatuz, gizadiaren historian zehar mareen eragina ikusi, usaindu eta sentitzen da.

IZKIRA URDAIBAI

M. 633 331 230

E. cristina@izkiraurdaibai.com

www.izkiraurdaibai.com



URKIOLA
HONTZA EXTREM



Abentura parkea, orienting, tirolinak, arko tiroa

Abentura parkea itzelezko basoan, aritzak, pagoak, gorostiak, ibili oinutsik natura eta bere textura ezberdinak sentitzen, lokatza, lurra, belarra, ura, gure zentzumenak garatzeko guneak jolasekin, gozatu naturaz.

HONTZA EXTREM

M. 633 468 947

E. hontzaextrem@gmail.com

www.hontzaextrem.com



URDAIBAI
WILEXTOURS



Hegaztien behaketa eta interpretazioa gida aditu batek lagunduta


Marearen erritmoari jarraikiz, Urdaibaiko paduretan barrena ibiliko gara hegaztiak behatzen, bokaletik Urdaibai Bird Center-era, landa-ingurunean oinez ibilaldi atsegina egiteko prest eta, ahal izanez gero, prismatikoak ere ekarrita.

WILEXTOURS

M. 665 642 947

E. pablo.perez@wilextours.com

www.wilextours.com



73



IZKIKO PARKE NATURALA
FAUNEANDO



Fauna eta natura behatzea

Anima zaitez gurekin natura ikusi, entzun eta sentitzen ikastera Araban. Interpretazio-ibilbideak eta txango gidatuak: hegaztiak, oinatzak, flora eta abar. Basoko hegaztien argazkietarako hide bat daukagu.

FAUNEANDO

M. 649 098 282

E. fauneando@gmail.com

www.fauneando.com



GORBEIAKO PARKE NATURALA
FEEL THE ADVENTURE



Ibilbidea ILARGIAREN argitan. (Gaueko ibilbidea)

Ezagutu gauaren magia! Ezagutu Gorbeia Parke Naturalaren sekretuak egunsentian. Mendigune honetan ohikoak ez diren txokoak ezagutzeko irteera, mendi gidariek lagunduta. Goizaldean hasiko gara igotzen, frontalak jarrita, egunsentia ikusteko.

FEEL THE ADVENTURE

M. 669 014 699

E. info@feeltheadventure.eus

www.feeltheadventure.eus



GORBEIAKO PARKE NATURALA
FEEL THE ADVENTURE



Ibilbide Megalitikoa (Orozko)

Gorbeia Parke Naturalaren barruko ibilbide megalitikoa. Iraganera eramango gintuzten leku interesgarriak: Kurtzegango menhirra, artzain sarioak, pagadi motzak eta beste hainbat gauza ezagutzeko.

FEEL THE ADVENTURE

M. 669 014 699

E. info@feeltheadventure.eus

www.feeltheadventure.eus



BILBAO
FEEL THE ADVENTURE

Bilboko Eraztun Berdea (GR-228)

Inguruko mendietatik hiriaz eta itsasadarraz gozatzea. Bizkaiko hiriburua hainbat ikuspegitatik ezagutzeko aukera paregabea, eta, aldi berean, haren iragana eta etorkizuna hobeto ezagutzeko aukera.

FEEL THE ADVENTURE

M. 669 014 699
E. info@feeltheadventure.eus
www.feeltheadventure.eus





nekatur

Zatoz Euskal Herria ezagutzera eta hartu ostatu Nekaturek eskaintzen dizun landa-ostatuetao turistikoetan.

- Etxe osoak, logelak, apartamentuak...
- Deskontuak Euskadiko baliabide turistikoetan.
- Opari bonu eta txekak.
- Komisiorik gabeko erreserbak, preziorik onenekin eta kudeaketa kargurik gabe.

www.nekatur.net







etikoa
Turismo Euskadi

Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa

Euskadiko Turismoaren Kode Etikoaren helburua da erakunde turistiko guztiek erantzukizun sozialak eta ingurumen- eta ekonomia-jasangarritasuna txertatzea eguneroko jardunean.

TURISMO
ARDURATSUA



**BASQUE
TOUR** *turismoaren
euskal agentzia
agencia vasca
de turismo*

EUSKADI
BASQUE COUNTRY



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

Hemengoa, zalantzarik gabe. Inconfundiblemente de aquí.

Paregabeko ingurunea eta
bizitzeko modu bakarra.
Un entorno único y
una única forma de vivirlo.



euskadigastronomika.eus

EUSKADI
BASQUE COUNTRY
Gastronomika



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO BAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

